

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Santi Madariaga Makoaga

*Morga, Bizkaia
(1929-2010)*

Aurkibidea



Biografia



1929ko zezeilaren 8. egunean
jaio zen Morgako Meaka
auzoko Etxebarri baserrian.
Gerra sasoian, etxe horretan
zegoen intendentzia eta bera
umea zela taberna ere bazen.
Aita morgarra zuen eta ama
Fruizko erregatera. 15
senidetatik 13. da bera.
Eskolara gutxi joan zen, 12
urterekin morroi lanetan hasi
zen hainbat leku eta herritan,
Morgako Sagastiko errotan
eta Gabiriako Etxaitegi
sagardotegian bestea beste;
hori dela eta, errotako eta
sagardotegiko bizimodua eta
bertako lanak oso ondo
ezagutzen ditu. Soldadutzan
tifusak eta neumoniak jota
egon zen, eta telefonista eta
bulegari bezala jardun zen.
Beraien etxean eta familian
gerrak asko eragin zuen:
anaia bat fusilatu zuten beste
5 morgarrekin batera
Ferrolen, beste anaia bat
langile-batailloietan egon zen
preso, beste bat Bilboko
kartzelan egon zen, aita EAJ-
PNVko zinegotzia zelako 26
hilabetez egon zen preso, eta
4 arreba Frantziara joan ziren
errefuxiatu bezala. Etxea
kanoikadekin apurtu zieten
eta justu-justu irten ziren
bizirik handik osaba baten
etxera heldu aurretik. Esne-
saltzaile bezala ibili da urte
luzez; Unbeko 64 txaletetan
egunean 250 litro esne eta 30
dozena arrautza saltzen
zituen. Beranduago, eguneko
500 litro saltzen zituzten.
Dantzari ezaguna eta abila da
Santi, lehiaketa askotan parte
hartu du eta 56-57 urterekin
Euskadiko txapelketa irabazi
zuen. Erromeria zalea izaki,
panderoa, bonboa eta bateria
ere jotzen zuen lantzean
behin. 65 urterekin Muxikako
Ugartegoikora joan zen
bizitzera. Bere ematzea
fruiztarra da.

Zintak

MOR-001

- **Proiektua:** Muxikako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2010-07-23
- **Iraupena:** 75 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Transkribatzailea(k):** Gisasola, Karmen

MOR-002

- **Proiektua:** Muxikako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2010-07-23
- **Iraupena:** 79 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Anaia eta beste lau morgatar fusilatu Ferrolen

- **Erref:** MOR-001/002
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:02:27. **Bukatu:** 00:04:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Anaia eta beste lau morgatar fusilatu egin zituzten gerra denboran. Garraio-marinan lan egiten zuten, Ferrolen suertatu ziren, eta harrapatu eta garbitu egin zituzten. Handik gutxira, kapitainak bakean uzteko agindua eman ei zuen, baina ordurako berandu zen. Denera hogeit bat izan ei ziren fusilatuak marinelen artean.

Transkripzioa

- Ta bueno, anaixe bat gerra denporan afusilleu euren. Ha ta beste lau, Morgatik bost oseake, bost Morgatik afusilleu zittuezan. Ba kapittana Cadiztik Ferrolera etor zieen. Eta kapittanak salidie emon barkueri, eta Ferrolen gero hasi zienien, kapittana porture sartzeko barkue, kapittana ez zuen topau ta sartu euren barkue, baia momentuen, ensegida atrapeu ta afusilleu zittuezan danak, bat izen ezien hamalau urtekoa. Eta harek bota afusilleu bera, eta momentuen, deittu eban kapittanak: izteko geldik hareri ze, bera han dauela-ta. Baia ya ordureko eindde eon zan ein biherrekoa.
- Baia zure anaixek karguren bat edo zozer euki eban, ala?
- Ez, ez, ez. Horrek ba orduen bakixu, fabriketan ta hametik, baiño ixeten zan, nabegetan. Ordun ba, irebazten dirue, dirue irebazten. Eta oin bixen bittartien, harek ariñautik, gerrie urten baiño ariñautik ibili zan ha, ba barkuen nabegetan. Eta ha eta beste Morgatik, oseake, beste lau, bost ixen zien. Eta danak bertan hil, afusille zittuezan. Ez dakit zemat izen zien, hogeixen bat-edo bai guztire.
- Ta nun hori?
- Ferrolen.

- Han Ferrolen?
- Bai.

2. Anai-arrebak kartzelan edo Frantziara ihesi

- **Erref:** MOR-001/003
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:04:06. **Bukatu:** 00:05:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Anaia batek zazpi urte egin zituen soldadutzan eta Langileen Batailoietan. Beste anaia bat, beldurtia oso, ihesi joan zen Frantziara; eta, itzuli zenean, bi urtez eduki zuten kartzelan. Lau arreba Frantziara joan ziren ihesi.

Transkripzioa

- Eta gero beste anaixie be, oiñoarren bixi de, larogeta hamalau urtekoa, ha be urte asko eon zan. Hak be, urte asko ein euen, zazpi urte ein zittuzen harek be soldadu. Te gero eon zan gerri pasetan Batallón Trabajorietan eon zan; ha ta beran lagunek, beran kinttoak, beste lau edo bost, bertako Morgakoak. Eta bueno, gero beste anaixa bat, ha billurtixe ixen zan, eskopetiei ukituten be, billurre dekola ta gerriei eskapa ein otsen Frantzixera. Ta handik etorri zanien, ba kartzela sartu gure euen, sartu euren, Tabacaleran Bilbon egon zan, ez dakit zemat,urte, urte paren bat, edo igual eingo zittuzen han. Eta ordun bakixu, gerra denporako kontuek, gerra denboran, arrebak igual, hiru-lau arreba-edo joan jatenzan Frantzixera. Lau? Bai, lau ixengo zien, Frantzixa joan zin, gerriai eskapetan. Lehenau baebakuaziñoa edo esaten jakien ba. Ba ta gerri pasata gero etor zien. Ta holako kontuek.

3. Morgan kanoikada eta bonbapean

- **Erref:** MOR-001/004
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:05:38. **Bukatu:** 00:07:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Zortzi urterekin harrapatu zuen gerrak Morgan. Bonba eta tiro artean gogoratzen du sasoi hura. Gurasoak Bilbora lan kontu bategatik joanda zirela sartu zen gerra Morgara, eta lau anaia bakar-bakarrik geratu ziren etxean. Kanoikadak baserria jo zuen eta alde egiten ari zirela ondo-ondoan erori zitzaien kanoi-bonba bat. Eskerrak ez zen lehertu, bestela han geratuko ei ziren.

Transkripzioa

- Han sasoi, asko joan zien Frantzire.
- Ta gu hemen Morgan, ba nik ordun ba zortzi urte edo euki nittuzen-ta. Gerra artien, bertan bonbak eta kañonazoak eta lau mutil lotu gentsozan

etxien, gaztienak. Aitte ta ama Bilbotik ixen zien, ordun nire ama erregeterie ixen zan, ta Morgako sekretarixolari oilloak erosi danak. Ordun ba billurraz edo jentik ba saldu eitten zittuzen /eittettuzen/-ta. Harexek, Bilbora eroaten dauzela bixek, aitte ta ama bixek, bixen bittartien gerrie sartu zan zerera, gure barriora, Morgara. Eta etzetik urten ein gendun geuk be ya kañonazoak etzi be apurtu ein euen alderdi batetik eta beste etze batzuri, be sartu otsiezan kañonazoak-eta. Geu bidin goazela, lauron albo-albora jeusi zan kañonazoa eta errementau ez. Oseake joan zan "iui" eurrera. Hor laprastan, zerien. Ostantzin, han errementan badau, kittu! Laurok han akabauko gintzezan seguramente, duderik bez. Bai, ademas frontie handixe ixen zan eta holantxe.

4. Francoren soldaduek beren baserria hartu zutenekoa

- **Erref:** MOR-001/005
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:07:01. **Bukatu:** 00:09:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Osaba batek batu zituen anaia gazteak. Handik laster, Francoren aldeko soldaduek hartu zuten etxea. Tratu ona eman zieten eurei, baita osaba eta amonari ere. Aurretik errepublikazaleen intendentzia-taberna egona zen etxean eta Francozaleek ere eginkizun berdinerako erabili zuten. Borrokaldiak eta tiro-hotsak gau eta egun.

Transkripzioa

- Gero ba etor zan ba frentie ostabe atzetik. Eta sartu zien gauez hara barriora ta bueno! Hango buf, horrek memorixan dekuz ondo. Ixen zan deskalabrozko konbatie eta hantxe alboan, bixi izen gendun osabie, ta ha etor jakun illuntzixen: " bixirik zauzie koitteduokin"- ta, bai. Ta etor gintzezan ta bertan osabienin afarixe-ta jan. Amuma euki gendun; ordun, han bixi ixen zan ta amuma ta danok, bertan dauila, afarixe jan han-ta etzi itxi iñor barik-eta. Eta etor zien, gero, frentie sartu zanian, danak soldaduk eta kapittan bat edo aurretik zerien, etzie errejistan, pistolak eta zerak imiñitte-ta. Nire osabik erakutsi otsien: "bueno, honek die lobak eta hemen dauket ama neurie ta bestie-ta". Halan pasau gintzezan. Ta gero ba, ondo. Soldadukaz ondo, oso ondo arregletan gintzezan. Eta amuma be eurek eukitten eben imiñitte, han gure osabien tejabanan. Ta eurek jateko ardurie berana, ta itzelezko, itzel. Ta geuri be, bai. Itzel, itzel. Total, ondo.

- Ze, milizianuek?

- Bai, bai, bai, bai, hemengo, zerokotarrak, esan gura dot, Franco partekoak. Bai. Ta gure etzie, harteraua, taberna moduen edo ordungo xera ixen zalez, bestien bizkaitarren partetik be intendetzixe egon zan gure etzien. Eta bueno, gero be, gero ondo. Baina, ondo, lantzin, geu baten, ostabe barrixen etorten zien zerak, atzera barrixen kentzien. Eta geuetan konbatik itzelak. Bueno! Han terriblie izeten zan. Ha metralladora ta bonbie ta esku-bonbie ta "bo"! Ta ixen zien hiru-lau gitxienez, hiru-lau bai ixen zien, zerak atzera barrixen, enboskadak; oseake, barrixen atrapetan, beste alderdittik etorritte. Baina, halan paseu zan, halan paseu zan.

5. Burdinazko Gerrikoa erraz apurtu

- **Erref:** MOR-001/006
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:09:36. **Bukatu:** 00:11:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Frontea beren auzoan egon zen, lehenengo errepublikanoena eta gero Francozaleena. Begi-bistan daude etxetik Bizkargi, Santo Domingo eta abar. "Cinturón de Hierro" famatua egiten jende asko ibili zen lanean, soldata truke. 10 bat pezeta irabazten zuten egunean. Baina ez zuen ezertarako balio izan, erraz gaingitu baitzuten tropa frankistek.

6. Zauritu asko soldaduen artean

- **Erref:** MOR-001/007
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:11:24. **Bukatu:** 00:13:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Frontearen lehen lerroan bizi ziren. Bizkargi (errepublikazaleen gotorlekua) zuten aurrez aurre. Kanoikadak eta bonbak noiznahi jausten ziren inguruan. Zauritu asko izaten zen soldaduen artean. Handik Meakaurrera jaisten zituzten ohatiletan, gero ospitaletara eramateko.

Transkripzioa

- Han ez zenduen euki zuek, ezkutetako lekuri edo refujixorik-edo eindde?
- Keba, ez ze baia errefujixoak, horrek errefujixoak. Bai, ba beti jaboten da usta, baia geuk, geuk ez gendun euki, baia euki zittuezan /eukittuezan/ batzuk, errefujixoak, euki zittuezan /eukittuezan/. Eta errefujixora doazela be, bai ametrailleten zittuezan zerak, honek kazakoak, esaten jakonok, abionetak, Jesus, ametrallau, ta ez zan iñor suertau hiltterik, baia leiken, leiken. Ha han gogor joten euen han parajien. Bueno! Han geure alboko lehengusiñakaz,neu be etze atzeko asun artien. Klaro, harek ya bat ezkontute eon zan ta bestie, bat oñogarren soltera, ta asun artien: "geldi, geldi, geldi" niri be. "Galdu gara, galdu gara", baia bueno, salbe gintzezan, mobidu bez asun artien. Pika oskuen asunek, baia alperrik. Han egon bihera egon zan, geldi; mobimenturik bez, ezenik be barik eta eskapau artien abionetak. Ta han nik ez dakit ba, zeozar, nonon han ukusi euren gure etze atzetik, zerin-ta. Han botaten, deskargetan jun zan, zera metraillie, horraz. Eta gero, Elizburu esaten jakon aurreko zerin be eon zan, harek euki otsien errefujixoa ta antza [...] ikusi ein zittuezan ta han, bai asko atakau eben. Beheko, beheko errecondoaño sartzen zien ta han, atarata euren, bueno. Deskargeten zittuezan kriston zerak amatralladoraz. Baia suerteu ez, suerteu ez.

7. Asun artean etzanda, hegazkinen beldur

- **Erref:** MOR-001/008
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:13:25. **Bukatu:** 00:15:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Babeslekuak izan baziren, baina ez zuten askorik babesten. Gainera, ehiza-hegazkinak metrailatu egin ohi zituzten ezkutalekuetara zihoazenak. Behin, izeba bategaz egonda dago asun artean etzanda, geldi-geldi, hegazkinak pasatu arte. Elizburu auzoan bazen babeslekua, baina hegazkinak jo-puntuan zuten.

Transkripzioa

- Ta orduen ze egon ziñien zuek osabanien te amumanien?
- Ez, amuma geuaz izengo zan. Baina gu, ha frentie etor zanien, ya etxie be alderdi batetik jota kañonazoak ba zulu ebena eta gero, etze aurrekoari be, goittik, teillatutik sartu otsiezan /sartutsiezan/ kañonazu bi. Eta bueno, ba justo antzin urte gendun, ta guk urten ta sartu zien zerak. Ta bertan eon banintzen igual, ba, atrapako oskun berak bertan-edo, ez dakigu, jakin ez zera, ze pasako zan. Baia harek memorixan dekuz oñogarren orduko geuzek. Ta gero beti ibiltten gintzezan geu be soldadu artien. Soldadu artien-ta. Bueno etorten zien kañonazoak, baia aparteta gintzezan gu. Ta igual, albo-alboan errementaten doskuen kañonazoak, baia salbe gintzezan gu.
- Ez zenduen euki refujixorik edo?
- Ta soldaduek, soldaduek asko, asko heriduten zien. Asko ta kamilletan ekarten zittuzen /ekartettuzen/ hantxe igual, barrioa hurrengo etzeko tejabana batera eta han eitten otsiezan /eittetsiezan/ kurek-eta. Kamilletan hartute eta bajaten zittuezan Meakaurrera, behera. Ze orduen oñogarren kamiñorik be ez zan egon gure barriora, ez zan egon-ta. Kamilletan bajatu eitten zan, ta gero, hortik, ospittelera atarako eitten zittuezan. “Buf”, hor, hor frente gogorra eon zan, gero! “Buf” gogorra. Kañonazoak, kañoiek, han Meakaur baiño gorako zerien, hiru kañoi. Haren aurretik disparen dabizela, makiña bat bider pasau gara gu handik. Handik Bizkergire. Bueno eta elixpie barru ta kanpo, dana proietillekaz beteta. Bai, ene! Hori, hor ondo zertute egon zan ha, ondo preparaute.

8. Aita 26 hilabetez kartzelan, PNVko zinegotzi izateagatik

- **Erref:** MOR-001/009
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:15:20. **Bukatu:** 00:17:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Aita eta ama painelu zuria makila puntan ipinita itzuli ziren etxera frontearen beste aldetik. Geroago, aita 26 hilabete kartzelan egin behar izan zituen, PNVko zinegotzia izana zelako. Eta, aita bezala, zinegotzi eta alkate ohi asko kartzelan eduki zituzten.</p>

Transkripzioa

- Ta ama ta aitxe bitxartien?

- Ama ta aitte gero hurrungo egunin etor zien, ze ya ha frentiek atrapata eon zan lez hau gure zera. Ze nire barrioa altu dau eta etor zien, gero Fiketik etor zien ba oiñez. Etzera sartu zien, ordun ba, pañelue zurixe-edo ixeten zan ta soldauek ha ba. Soldauek eureñe etor ezkerro, ez dotsuen /etsuen/, ondo hartzen dotsuen /hartzentsuen/. Osake hemengo ta francotarrak, ondo hartzen dotsuen /hartzetsuen/, edozein. Ta harek be ya egune zabaldu zanien, etor zin pañueluek-edo erakutsitte ba. Oseake zeindde ba, baia harek, ba, Bilbon atrape dotsuzen /atrapetsuzen/, honek frentiek-eta. Han holan zertu zen. Ta gero aitte be, aittek be hogeta sei hillebete egin zittuzen /eittuzen/ gurin kartzelan, zera izen zan-ta. PNVkoa ixen zan, ta orduen zeretik eon zan, osake aiuntamentun kontzejala izen zan. Eta nire aitten moduen hango alkate ta ixen dienak, danak pagau eben kartzelan. Esauten eben, eurek ez dekiela [...], baia han klaro, Francotarrak edo horrek nire aittek konteten ostezan. Eurek ez ebela ezer iñori, ez ziela zertu, motiborik zertu, emon. Baia uzaba gurie izen zan, Sagastikue esaten jakona, propietarixo handixe hemeretzi etxe-edo euki zittun Morgan, eta harek ein zittuzen /einttuzen/ beran suhiñe ta batzuk Gernikeko zerien afilieu. Osake zeretik, Francon zeretik. Eta handik atrape zittuzela gure aittek esaten eban, horrek atrape dotsola /atrapetsola/. Ez eurek eiñeko denuntzixetik. Ta lehena holan koisten dotsiezan. Ez eukien zertan esan zerik-eta. Zera-ta joan ta han, fitxeroan koisten dotsiezan-ta ta handik. Ta pentseten otsuen, baia ez, ez.

9. Derioko kanposantuan fusilatutako presoak

- **Erref:** MOR-001/010
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:17:30. **Bukatu:** 00:19:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Morgako inor ez ei zuten hil fusilatuta gerra ostean; kartzelan eduki bai asko. Aitak esaten zuen kartzelan gauero ateratzen zutela jendea, kamioietan hartu eta Derioko kanposantuan fusilatzen. Arreba bat neskame egon zen Derion eta esaten zuen erdi hilda geratutako fusilatuen oihuak entzuten zituztela gauez, laguntza eske. Santi Salamanca aldean ibilia da eta han ere horrelako istorio asko entzun du.

Transkripzioa

- Ta ezta Morgan iñor ez due, iñor hil ta holakorik ez due iñor hil. Esan gure dot /quot/ nire aittek esaten deu ba kartzelan eon zanien, geu danatan deittutzen dotsiela pillo bateri; eruateko, eroaten zittuen kamioiten-edo, zerera. Pentseten dot gehixenak hor Derixoko kanposanture. Ta han, han afusilletan zittuzen, kanposantuen. Bai, bai. Nire arraba bat eon zan han kanposantuan ondoan, krixeda egonda. Ta harek esaten eban, igual afusilleu arren, hil ez da eitten iguel, eta iguel gau batzutan, geu guztixen, sokorruke hiltten-ta hantxe egoten ziela batzuk. Kamioien, ez. Kamiotik bajatu ta gero, horma kontra ipintten zittuezan ta garbittu. Eta orduen ezebez; asko ta asko ezetariko errurik ez dekienak. Hori, zenbatek page deu. Hamen, ez. Bizkaixen, ez. Bizkixen ta España

danien. Ni, gu Salamancatik-eta ibiltte gauz ta bueno, han be desastrik. Esaten daue harek be hango jentik be, eukitten eban esateko, bueno! Asko. Eroan holan herrixetatik eroanda. Igual ezen zerik ez dekena.

10. Aita Larrinagan preso 26 hilabetez

- **Erref:** MOR-001/011
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:19:05. **Bukatu:** 00:20:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Aita Larrinagan egon zen preso hogeita sei hilabetez. Auzokoa zen falangeko burua, eta salatzailea bera izan zela esaten zen; baina gero ondo portatu ei zen eurekin. Errakuntzak denok izaten ditugula dio. Horrelakoak herri guztietan gertatu ei ziren.

Transkripzioa

- Ta zure aitxe kartzelan ze egon zan, Bilbon-edo?
- Bai Bilbon eon zan, Larrinagan.
- Hogeta sei hilliek?
- Hoeta sei hillebete. Osea gerrie paseute. Eon zan ta bueno. Gero ba, apurken-apurken ba joan zin gauzek, ba, normalizetan-ta ahaztuten-ta. Ahaztute ta gero ba...
- Ta zelan hartu bien indultoa,ba edo?
- Indultoa, ba orduen herrittik, herrixek eta orduen, ba falanjie ta bestie ta orduen zer asko eon zan. Ta hor euzokoa ixen zan, "jefe falange", alboko etzekoa. Eta ha be biher ixen /bixen/ zan ba, denuntxizeu edo esaten euren behintzet. Baina gero, gutzat gizon ona izen zan. Gizon ona izen zan eta ba, baia ekibokaziñue danak eukiten duut a hoixe dau ba. Baia, pentseu harek, bera be kartzelan egonekue ixen zan lez, pentseu gure aittek eta aiuntamentu be bai, ze ez zan ixen horrek. Eta holan ez, gu Morgan. Baia hori herri danatan, kontixu pasa zan hori. Ta baten batek ixen biher deu / bideu/ konzejal.

11. Zinegotzi izan zen garaiko kontuak

- **Erref:** MOR-001/012
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:20:25. **Bukatu:** 00:23:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:

<p>Santi zinegotzi izandakoa da gerra osteko lehen hauteskundeak egin aurretik zortzi-hamar bat urtez. Norbaitek izan behar du zinegotzi, baina ez da eginkizun gustagarria. Baserriko beharrari utzi eta udaleko lanetara joan behar izaten baita, batere irabazirik gabe, gainera. Uholdeak izan zireneko kontuak. Herri-epaile ere izandakoa da. Pentsatzen du gauzak itxuraz egin zituela zinegotzi kargua izan zuen sasoian. Alkatea ere gizon jatorra ei zen.</p>

Transkripzioa

- Neu be kontzejal, egonda nau. Bai.
- Morgan?
- Morgan, ta harik eta ba, hau zera kanbixau artien. Hor kanbixa zanien, ba pozik ni. Ta kontzejala ixetie, lehenau ba txarra izen zan. Esan gure dot /quot/ ze bihera ein biher izeten /bizeten/ zan, baserrixetan-ta ezta? Eta itzi dana ta joan ein biher izeten /bizeten/ zendun sesiñoak eta zerak dauzen lekuetara, ta irebazi, ezer ez dozun kobretan iñundik. Osake, arazue, arazue ta ezer ez. Ezer ez, orduen ez zan eon dirurik, ezetako be-ta. Iñundaziño batzuk eon zien orduen ta hirurogei mille ogerlekoko zer bat, ein biher izen zan kamiñuan muru bat. Eta urte bixen edo ez dakit zemat denporan, Madrillera eskatu ta handik ez zan diruik etorten ta [dauen] aiuntamentuen eurek eon zien, hirorogei mille ogerleko. Ta eurek bertan egon zan zer bat, albañela zerien eta hareri emon eta ein zen. Ta gero ba, itxaron ein biher, harik eta etorri artien.
- Ze urtetan izan ziñen ba zu konzejal?
- Ez dakit ba, ze urtetan ixengo nitzen ba. Ba zera artien. Orduntxe, hantxe, haxe kanbixu ein artien; Euskadin zera, PNV ta hau parau artien. Ordutxen artien. Juez be bai eon nitzen ni hainbet urtien, ariñau.
- Zenbat urtien izen ziñen?
- Ba ez dakitsut zemat urtien. Igual danan-danatara, zortzi-hamar urte bai. Danakaz. Ta ezebez, esan dune ba ez zendun irebazten txakur haundik bez. Ta joaten zintzen, zerera ta handik urtenda, igual zeozer, txikito bat edo bi hartzen badozuz, eurek noberan boltsillotik pageu ta etzera etorri ta etzien biherrak eitteko edo ahal dan moduen. Ordueneko kontuek holan ixeten zien. Ta oingo moduen alkatik eta suelduek eta bestiek eta bai! Alde ona jagok, orduen, bueno!
- Jentiek eskertzen eban, zuek eitxen zenduen bihera? Eskertzen dotsuen?
- Pentseten dot, pentseten dot. Ze ni neuk dakittela, sarri esan dot, egoten die herrixen diferentzixiek, ezta? Ba ni neuk dakittela, ez dot pentsetan, euki dunik, iñor persona bat diferentie hango barriokue ixen edo bestekue ixen, biher dan geuzie eitteko, ba danari bardin, pentseu eitten dot, alkatie be nahiku ona ixen zan.

12. Auzo bakoitzetik zinegotzi bana udalean

- **Erref:** MOR-001/014
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:23:46. **Bukatu:** 00:25:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:

Orduan auzo bakoitzetik zinegotzi bana egoten zen. Aspaldian ez da egon Meakako zinegotzirik, eta beste auzoetakoak ere gutxi. Orain ia denak erdigunekoak ei dira. Lehen behean, eliza ondoan, zegoen udaletxea baina gero Andra Marira eroan zen.

Transkripzioa

- Ta orduen konzejalak be barrio bakoitzetik konzejal bat eoten zan. Ta gaur egunien, ba Andra Marire pase zen aiuntamentue gero. Eta ya gaurko konzejala, ya, dire bertakoak.
- Andra Marikoak?

- Andra Marikoak. Ta nik urten dotenik hona, nire barriroan ez da egon. Behera bez eta beste askotan bez. Oin artetik eon da. Oin artetik eon da bat, hainbat denporan; ostontzien ba eurek ixen die bertako zera, alkatien lagunak-edo, bertan bueltakoak.

- Lehen nun egon zan aiuntamentue ba?

- Beheko zerien, beheko parrokiaren. Bai, ta gero ein ein zan, aiuntamentu ta eskolak-ta. Esan gura dot /quot/, zer barrixe ta ein zien, etze barrixe ein eben, aiuntamentu barrixe goiko Andra Marin ta hara eroan otsuen / eroantsuen/. Negoizoa pentseu, beti ein dau, beti ixeten da bestiek, bestiek aberastuteko billurre edo nik ez dakit zer.

13. Idi-probak Morgan

- **Erref:** MOR-001/015
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:25:01. **Bukatu:** 00:27:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

<p>Idi-probak antolatzen lagundu izan du. Zorrak egiten ziren, eta zorra ordaintzeko pinuak botatzen ziren herri-basoetan. Gero, goialdean Andra Marin egin zen probaleku berria. Santik iragarri zuen etorkizun zaila izango zuela eta hala gertatu zen. Andra Mari auzoko jendeak zaletasun gutxi izan du horrelako gauzetarako, nahiago taberna giroa.</p>

Transkripzioa

- Bardiñe paseten zan, probatan, probak eoten zin ba beheko zerien, probaderoan. Eta ni be han ibiltzen nitzen biherrien, zer danatan lagunduten. Eta probak eitten zin bakotxien, zor eitten zan. Zor eitten zan beti. Ez apur bet, bastante eitten zan zor. Eta ha zorra pagetako, ibillitte gauz gu, hamen eon zan serrako bat, David, ez dakit ezetuten bazendun, horrek serrie euki bana. Eta herriko basoan bota piñuek eta hango gastuek pagetako, piñuekaz haxe. Aiuntamentuen dan-dana agertu biher ixeten zan ta zerak, “a raja tabla” ibilli biher ixeten zin, ta diruik ez zan egon-ta. Diruik eon ezien, eta probak-eta bai, imiñi bai, espetakuloa, baia danatan eitten zan zor, gitxiau-gehitxuau danatan eitten zan. Eta gero ein otsuen / eintsuen/ Morgan, ba ein otsuen /eintsuen/ holako afan itzelaz goixen ein otsuen /eintsuen/ gero, probaderua. “A bai?” nik esan be bai jentieri: “laster eingo dozu nahikoa”. Eta bai, laster egin eben nehikoa bai. Eingo ez duu, ba? Ze bertako jentie probak dauzenien, tabernan jokoan. Eta etzekoa ez badoa, kanpokoak ez da zera. Lelengo etzekoak joan biher due /bidue/ probaderoa beteteko. Eta entradak pagaute, baia Morga, Morga beti ixen da, hau Andra Mari partie sobre todo beti ixen da, holakotan baiño espetakulu zeratan-ta baiño, tabernako jentie, taberna- gixonak, tabernan jokoak edo txikiteoa edo hori zera. Eta ostantzeko gauzek, ba, hor konpon. Ta ez bazeuen, bertako jentie ez badoa, kanpokoagaz bakarrik gitxi da, bai. Eta itzi otsien /itzitsien/ klaro, nik ez dakit zer ein eben, ezta? Baia negoziuik eta holan pentseu bez! Probatan eta horretan ez dau, ez dau.

14. Morgan probalari eta probazale gutxi

- **Erref:** MOR-001/017

- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:28:05. **Bukatu:** 00:29:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Kanpotarrak izaten ziren probalariak, bat kenduta. Lehenago idi asko zen baserrietan, baina traktoreak etorri zirenean kendu egin ziren. Berak ere eduki izan ditu idiak. Dirua beti jokatu izan da probetan.

Transkripzioa

- Ta Morgako jentiek parte hartuten eban probatan edo kanpotik etorriniko jentie izeten zan?
- Morgan kanpotik etorrikoak. Bat, bat eon zan idixek euki zittuzena. Ostantzein hor, hor, hor, ariñau bai. Ariñau bazien Morgakoak, hainbet buzturrik eitten eben beheko zerien. Ta gero jentiek itxi ein otsen /eintsen/ gero. Idixek be ya kendu ein zittuxan bakotxak eta tratorrak-eta etorri zienien, ya idixek geuk be beti eukitzen genduzen; ta idi-buzterrixen ona ademas. Proban.
- Eta dirue-ta mobiduten zan probatan edo hori geroko kontue da?
- Bai, bai, bai. Dirua, jokoa bai eon zan, jokoa eon zan.
- Bai.

15. Ihes egin zuen apustulariaren kasua

- **Erref:** MOR-001/018
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:29:05. **Bukatu:** 00:30:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

<p>Morgan pasatutako gertaera xelebrea. Idi-jabe bati pena ematen zion bere idiak proban jasotzen zuten tratatuak, eta horregatik urrun egoten zen egun horietan. Behin, haren antz handia zuen batek trabesa egin zuen eta galdu. Gero ihes egin zuen probalekutik, ez ordaintzearren. Artekaria haren bila hasi eta iheslariaren antz handia zuen idi-jabea aurkitu zuen. Halako baten argitu ei zen kontua.</p>

Transkripzioa

- Ordun ba, jokoa ba ixeten zan, ba bost hamar ogerleko-edo, holan ixeten zan jokoa, jeneralien, handik gorako asko ez! Han nire euzoko batek euki zittuzen idixek onak euki zittuen, idixek majoak. Eta gixajoa ganadueri, ganaduek pena emoton otsien eta ze ein otsun? Harek ikusi ez eittiarren kanpora joan. Ta hamengo goikoa Muxikekoa, Txomin, Txomin Esperantza esaten otsiena? Ha bastante famosue izen zan tratuen-ta. Gero ixen zan probatan ta jokalarixe ixen zan. Ta klaro hara etorritte ein dittuz, trabezak, ordun esaten jakon trabezak, jokoan ein deu ta gero galdu. Galdu ein deuenien, eskapeu gero; eta bestie, idi uzaba, bera antz-antzekoa izen, kolore gorrixen ta beran zerin-ta, hareri gero zera, korredorik agarreten otsien /agerretetsien/. Sekule beran denporan ogerleko bat jokatu bakoa ha. Bai pentseu euren, idixek pena emon edo ikusi ez eittiarren kanpoan

zertute, sufriduten zelan eongo zan. Ez zan juen, ni hemen nau, baia idi koitteuek, zelan ete dauz, palizie hartzien? Eta gero berari emon otsien / emontsien/ zera sustue. Bai hori pase zan Morgan! Hareri, hareri gero agarre otsien /agarretsien/ ta ba antzekoe izen zan, Txominen antzekoa-ta. Bueno, gero topauko eben. Topauko eben, baia behintzet, lelengo, pentseu zuena /pentseutzuena/ ha kanpora eskapeta dauela, ta keba!

16. Probalarien tranpak

- **Erref:** MOR-001/019
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:30:49. **Bukatu:** 00:32:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Zurrumurruak ibiltzen ziren zenbait probalarik tranpak egiten zituztela eta. Esate baterako, xaboi bereziak erabili harriak hobeto laban egin zezan. Tranpa gabeko joko gutxi ei dago. Tongoak ere izaten ziren, jokoa apropos galdu, ahal zutena baino gutxiago eginez.

Transkripzioa

- Bai, ordun be nahikoa komedi izeten zan.
- Probetan-ta eitten zien tranpak-eta? edo harrixen zozer paseu laban eitzeko edo idixeri zozer emon-edo?
- Eitten zan bueno orduen nik ez dakit, egixe edo guzur, behintzet errigoitarrak euki dabe fama handixe orduen. Ordun Errigiittin eon zien Maldo esaten jakona, karreterue ta Lazaro ta horrek. Ta horrek esan eitten eben, oin, nik ez dakit, nik ba orduen nehikoa gaztie ixen nintzen-eta, barkuen ibiltten zala ez dakit nor batan bat nabegetan ta handik ekarten euela zeuzer, jaboie espeziala probaderuen botateko. Eta bai Maldok be iñoz eindde ein deuela kolkoan eroan ta gero, han ixerdixe botaten eban, "off" einde-ta. Ha bota euela ta gero, ha han eitten zala laprast. Ta horrek errigoitarrak bastante hor famie euki, oin, ez dait, danak ez zien egixek be igual ixengo, ezta? Baia bai eon zan apurtxe bet, apurtxu bet eon zen bai hori, zera hori. Hor eon zin ordun apur bat gixonak apurtxu bet, paseu eitten zienak hor asuntoan. Baia beittu, jokoa, nik ez dakit oin be, zelan ixengo dan baia jokoa, tranpa bako joko gutxi dao, gitxi-gitxi-gitxi-gitxi. Eta orduen orduen oin baiño nezesidadie be gehixao eoten zan ta bueno, eitten zien. Tongoa, tongoa esaten jakienak-eta, idixei be, ein eitteko kapazidadie dekienak be, igual harrixek atara ta denpori paseua ta horrek geuzek. Eta bueno.

17. Asto-probak

- **Erref:** MOR-001/020
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:32:49. **Bukatu:** 00:34:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Asto-probak sarri egiten ziren eta jende eta lehiakide asko erakartzen zuten. Baina haiek ere ez zuten dirurik ematen, sarreretan ez zelako behar beste jasotzen.

Transkripzioa

- Eta gero, asto-probak eta zaldi-probak-eta egoten zien?
- Asko, Morgan asko. Urtien, baten edo bitten beti, segixen. Zaldi-probarik iñoz ez da egon, asto-probak bai. Eta asko batzen zan! Hasi Bermiotik eta hemen Mendata aldetik eta Muxiketik eta asto asko. Bertako bat edo bi be bai-ta. Bai, ta egoten zien hiru-lau egunien, probak Morgan, asto-probak. Baia ezebez, haregaz be, esan eitten, irebazten ezer, baia. Aunke jentie biher da /bide/. Entradie biher da /bide/ ta entradarik ez badeu, ez dau. Ta aiuntamentuek akabuko txakur haundixe baiño kontrolaute eukitten eben orduen. Orduen ezin zendun ezebe zertu, ezer bez. Osake zeuzer ein biher bazendun, aiuntamentuek ya sekretaixoan zerin bittartez ein biher ixeten zan, ba. Ta zor eitten bazendun, beste zer baten. Han be zeuze tranpie eingo eben sekretarixoak. Beste zer bat, beste ixen baten imiñi hango gastuek-edo. Nik ez dakit zelan, behintzet galdu eitten zana danatan dakit. Nik ba eon naz hainbet urtien eta beti paseten zan bardiñe. Beti paseten zan bardiñe, baia alkatie izen zalez tabernakoa, ba gero erdi-pariente be bai nirie be bai ta gero ba, lagundutiarren lagundu ein biher jakon / bixakon/ hareri ba-ta zeuzer tabernan, baia ezebez. Ta jentie gero bertan be, afarixek eta aingeruk prest eoten zin, baia askok Andra Marire edo beste lekuta eskapetan euren. Ta ba ez zan Makaurreko probaderoak ez zuen erresultetan, ez zuen erresultetan, ez dait zegaittik.

18. Euskal Herriko dantza-txapelduna

- **Erref:** MOR-001/022
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:35:10. **Bukatu:** 00:39:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Hirurogeitaka urtean egin du Santik Morgan dantzan. Santi Euskal Herriko txapeldun izan zen dantza soltean 56 urterekin. Andrakako emakume bat izan zuen bikote, oso dantzari ona. Beste morgatar bat ere izan zuen dantza-lagun txapelketatan, hura ere oso ona. Herrietako lehiaketa askotan parte hartutakoa da. Gamizen oso dantzari onak egon ziren, horietako bat Karmen, berarekin egiten zuena, bikaina. Erromeria askori hasiera emandakoa da Santi.

Transkripzioa

- Ta holan herri-kirolak eta holakoak, egoten zien?
- Keba!
- Ez?
- Ni, orduen espetakuloa emonekoa neu ixengo naz Morgan. Nik hirurogeitazak urtietan, ein dot beti jantzan, jantza soltuen fiestetan.
- A, bai?
- Bai, igez be bai. Oin igez artien, oin aurtengue oñoka ikusteko dau. Ostantzien danatan.

- Dantza sueltoan, bai?

- Bai. Ni jantza asuntun asko eindde nau, baia, Jesus! Nik premixuk, "campeón de Euskadi"-ta atarata nau, gero.

- A, bai?

- Bai. Eta ez gaztetan; berrogeta hamasei urtegaz ganera. Galdakaon eon zan-ta.

- Ta ze fandangoa ta arin-ariñe ta?

- Bai, bai, bai, trikitiaz, soñuaz. Bai. Nik ordun eroan nuen lagune ona. Andrakakoa. Andrakako andra bat. Ona, ona, jantzan. Oso ona, bueno! Itzela izen zan. Baia euki dotaz, berton be, bueno, hemen han Morgan egon zan hamengo Landosko alabie. Santi Korean entzutie ez dozu euko entzutie? Landoskue izen zan, Santin alabie edo arrebie, Donatila. Bera bixi de hor. Oin Gerniken bixi da. Ta ha hareaz be asko, asko ein dot nik jantzan; asko, asko baiño asko, haraz. Ona, oso ona izen zan ha. Ta gero bakixu, ha be hona zertu zan ezkondu edo, zerera ta. Baia ni beti joaten nitzen, horra Fruiz aldera edo Gamiz aldera edo beti, hortik asko ein dot nik jantzan konkursoatan.

- Ta zelan ba hori afiziñoa-edo?

- Ba, haxe berez gusteu neurí. Ni enteretan nitzen igual Fruizen ta zerin da-ta progama batetik edo-ta. Neure lagunek itzi ta ni joaten nitzen beti, bixikletie hartute ta haixe jantza soltien. Etorre zan Gamizko bat eon zan, Karmen ixena dakona, ta harek, lagundute dosten, beti lagundute dosten, baia ona ixen zan, bo! terriblie ixen zan. Eon zien orduen, ordun onenak Gamizen eon zien. Eon zien hiru bet neska edo jantzan, hiru-lau bai ondo ietten euenak, ondo. Ba hau Karmen ixena daukona, niaz eitten euen, ixen zan, zerena, altie ta pof! Emoten dotsen harek, zer bat, ataten euen harek, bueno! Jagoten kosta eitten zen barriz bera. Total izen zan, nerbixosie-edo. Baia jantzan ondo eitten eben.

- Orduen zu gaztetan erremeoixetan-ta erregie izengo ziñen?

- Bai Beti. Nik zenbat honaz hasi nitzenien, kittu. Akaba zien erromerixak, beronaz bai. Bertan Fruiz-en edo baia ostantzien nik joan herrixetara [...] eta zenbat, zenbat erromeri hasi ete doten nik lelengo? Esan gura dot / guot/ jantza solti. Igual jo, hasten zan, ba soñue ixeten zan, ta zera eta igual jotie hasten zan ezta? Ta danak begire, iñok; eta ni beti, batan bat. Ze danak ya ezetute eukitten nittunez, "ra", holan eitten natsen, ta han edozeiñek lagundute osten. Osake neuk zertu-ta. Edo, ni hasten nitzenien, hasten zan jente guztixe. Bo, ene errumerixetan!

19. Ezkondu ostean dantzan egin barik urtetan

- **Erref:** MOR-001/023
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:39:00. **Bukatu:** 00:41:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Ezkonduta gero luzaroan egon zen dantzan egin barik. Andrakako Rufino Arrola soinularia lehengusua zuen. Haren herrira hurbildu eta han jarri zen berriz dantza munduarekin harremanetan. Berrogeitaka urteak zituen ordurako.

Transkripzioa

- Eta holan konkursotara herri batetik bestera joaten ziñen, baia zein zan

holan gehixen gustetan jatzune edo politxena edo leku politxena-edo?
 - Oin aspalditxun, oin gero, ni luzero eon naz ezkondu nintzenien gero, luzero eon naz ni jantzan ein barik, urte askotan. Eta bueno, gero, bai, fabrikan ibili nitzen ta fabrikan neure lagun batek esan osten berari jantzan soltin gustetan jakola asko, ikustie. Ta esan notsen: “makinatxo bat eiñikoa nok ni ba” esan netsen ba. “Ez da ixengo egixe?” esan osten. Ta: “Bai, bai, baia oin ya, urte askotan be ez dot ein jantzan”. Ta bueno. Euki noben lehengusue, Andra kan soinarixe, Gerniken haxe hasi zen hor urrixen, akabue ta hasi zanien, lelengo trikitalarixe haxe izen zan, hor ibiltten zana, Rufilo Arrola. Eta esan osten nire fabrikeko lagunek: “koño, ba Andrakara joan biher dogu /biu/. “Ta zetan?” esan netsen ba, eta “jantzan eitten eta Rufiñoaiñe-ta”. “Neure lehengusue da Rufino” esan netsen-ta. “Koño ba”. Joan gintzezan, Mungixen hartu bost edo sei txuleta handixek zerien; ta han, tabernie euki dogun lez, ba txuletak-eta bi ekarri ostezan jantza soltin holan dabizenak, Larraurikoak bi, ekarri ostezan berak, neuaz jantzan eitteko. Eta bueno, joan gintzezan ta nik ba oñogan bastante gazte egon nitzen, ordun berrogeta zazpi-zortzi urte-edo, holan euko nittuzen eta joan gintzezan, ta esan netsen lehengusuai: “hamen gatozek ba ia jantzan edo zozer”, ta “bai, bai, bai, joko dogu soiñue” esan osten. Itzela izen zan ha ta ona, solti joten terriblie izen zan nire lehengusue. Eta bueno, gero hasi gintzezan ta hareik niri kolorerik bez horrek Larraurikoak. Ibillikoak izen zien jantza konkursoatan-ta. Eta esan ostien ba ze nik ba tokadiskoan bateaz-edo ba jantzan egunaro eitten dotela. !Bai! astixe zagok, egunaro jantzan eitteko! Etzin, biherrien ta fabriken, ta bueno...” Eta bueno, holan pasa zan.

20. Ezkontza bazkariko dantzaldi ikusgarria

- **Erref:** MOR-001/024
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:41:30. **Bukatu:** 00:44:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

<p>Euskal Herriko txapelketa antolatu zuten Galdakaon. Aurrez, ezkontza bat zela eta, sekulako ikuskizuna eman zuten Artxandan Santik eta han bilatutako dantza-lagunak ekinaldi inprobisatuan. Berdin-berdin egiten ei zuten biek.</p>

Transkripzioa

- Ta gero hori kanpeonatu ipin zuen /ipintzuen/ zerien, Galdakanon. Galdakaoko grupue, Andra Mari, joan zien nire lehengusueñe, ia jantzarixek onenak Bizkaixen nortzuk zeñiek dizen. Soiñolaixek jakin daki, soiñolaixek, ikusi eitten deu zeretik eta nor.
 - Emaztea: Zer in ikusi otsun, bodan.
 - Bodan bai. Boda bat euki gendun Artxandan, nire loba bat eta hori, Joxefina dauko ixena, zerekoa, oniño bixi de, zera, Andrakakoa. Harek jantzan zerien-ta. Bodan nik panderoa be joten nuen. Panderoa joten, beraaz joan nitzen ni, lehengusuaz. Neure buruei esanda, esan netsen baze: “bodara etorri biher dozu /biozu/ Rufino” esan netsen. Ta: “bai, bai, joango naz. Eta zuri, ez dotsut kobrako ganera” esan osten. Ta: “bueno, ondo dau. Ta panderoa neuk joko dot” esan netsen, ta ba: “zertu biher dogu /biou/-ta”. Bueno, aurrera hari, nire jantza-laguneri esan dosto /

esantso/: bera, Morgara doala bodara ta ni be bai, bodarik daukeu geuk be-ta. Haur, haren lobie ta nire lobie ixen zin ezkondu zienak. Eta Begoñan, Begoñan ezkondu ta bueno, ni pandero joten ta soiñu joten bestie, trikitilaixe. Ta bodie euki gendun, Artxandan ta han, korru bet-edo jo gendunien, esan osten: “Santi, igual zu, -ikusitte euki osten lez ni harek jantzan, lehengusuek- igual jantzan ein guruko dozu Santi?”. Ta: “ba, igual egin be” esan netsen nik. Ta harek andrik eitten deu zeure modu-moduen. Eta bueno, joan nitzen ta “ra”esan netsen ba andriai: “Zer, lagunduko dotezu jantzan?” esan netsen nik, eta “bai” esan osten. Ta hartu boltsie eta abarketak atara zittutzen poltsatik, preparata. Eta “aiba!” pentse neu. Ta bueno, jo euen jo oskun zerin. Bai, neu be ikeraute itzi osten. Igual-igual ein be bixok. Matematikue ez da, ta hutsik ezetan bez. Eta ein gendun eta gero, kanpoan ein biher dala /bidala/. Kanpoan ein gendun Artxandan. Bueno zapatu edo ez dakit ze ixen zan eta batu zan, bi mille lagun batu ez bazin bertan gu ikusten jantzan! Ta ein gendun kanpoan be korrue-ta; gero hortik etor zan, hona konkursoetako zerak, etor jatazan zerak, ordun hasi nitzen atzera.

21. Galdakaoko dantza-lehiaketan txapeldun bi urtez

- **Erref:** MOR-001/025
- **Iraupena:** 0:03:49. **Hasi:** 00:44:15. **Bukatu:** 00:48:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Galdakaoko dantza-txapelketarako deitu zituzten Santi eta Josefina dantza-laguna. Beste lehiakideak dantzan ikusita iruditu zitzaion ez zutela zereginik, baina oso saio ona egin zuten eta irabazi. Txapeldun geratu ziren eta baita hurrengo urtean ere. Hiru telebista zeuden ikuskizuna hartzen.

Transkripzioa

- Ordun Andra Marikoak jo zien ariñe. Ia dantzarixek nortzuk dien-ta. Joan ta hango jantzie, hango henbrie, Josefinai esan dotsie /esantsie/, ta ia ha be ona dala ta ni be bai. Esan dotsie /esantsie/, eta ia eingo badau kanpeonatora ba, zertuko bada-ta. Esan dotsien /esantsien/ baze, Santigaz ixen ezkerro bai, esan otsien, nigaz. Ze nigaz eindde eon zan bodan. Ta gero Meakaurrera etorri zien, telebisiñoa ta ni, gu koistan, dantza soltie. Galdakaokoak. Ta harek ikusitte ta ordun joan gintzezan, hara konkursora. Eta han soiñu hotsa, holako lonja baten-ta. Ba banoa ta neure lehengusue soiñu jotén. Eta harek ha nire lehengusue ekarri ta han, jantzari batzuk, Gatikekoak, harek neba-arrebak-eta, nik harek ikusitte, “enei!”pentsetan: “Horren moduen, gu, ez gara kapaz eitteko” pentsetan neu. Eta gero esan osten lehengusuek: “Santi, hamen apur bet entrenetako korrutxu bet”. “Bueno, eittie dau”. Ta bertara etor zan Josefina be. Josefina ba ni jantzan ein biher ixen neuena ta bueno. Ein gendun han, ta puntu bi galdu ostezan, bertan entrenetan gabixela. Esan netsen: “Ez deku zer eñirik” esan netsen eta “ez”. “Ba, kasuik bez. Ez deko ardure, ba ataten ez badou be-ta”. “Ez, ez, ez, ez, ez. Ez gara horretan etorri” esan netsen nik. “Ba, sea lo ke sea, urtengo dau, urteten dauena”.

- Emaztea: Niri semik, bestera esan osten, ba hasarratu!

- Ez, ez, ez. Hasarratu ez. Eta bueno. Gero, plazan ein biher ixen zan, baia hiru telebisiño eon zin han gero Galdakaon, Euskal Telebista ta Tele Norte

ta beste ez dakit zein. Hiru zer koistan zerien, han plazan. Ta ein duu jantzan ta ondo ein gendun. Ez gendun punturik, ezta ixpirik be ez gendun galdu.

- Emaztea: Ez dozue iñoiz ikusi, askok esan doskun, hau ixan zan telebisiñoan.

- Nik ez dakit.

- Bai, telebisiñoan asko urten dot nik. Nik eindde deket, hamengo herriz herrixeko zerien be, urteten dot nik. Herriz herri, hemen Muxikekoak eta be, leku askotakoak ein eben. Baia ni, oin be, Roberto, Roberto bastante famosuena da, ta Bizkaixen, ta Kepa; horrek trikitilaixek- eta joan ta ekarri deu Bilbon jantza-leku dau eta handik, nire zera, nire jantzie. Ta etzin dekola esan osten. Bai. Ta gero han, ein gendun jantzan, ta bai, ondo urten euren. "Egunin zenbat biher eitten dozue?" han bertako Galdakaoko henbrak-eta. "Egunien? Total be, ez dogu horren asko ein". Eta zer da kontue ta joan nitzenien jantzan eindde, lehengusuk esan osten: "Santi" esan oten, "Ielengoa eroan biher dozu /bizu/" esan osten, ta: "Ixilik egon hadi, honek nik ikusi dotez honek gaztiak-eta hemen ezin da". "Ez, ez, ez. Txaloik gehixen zeuri jo dotsue ta onduen ein dozu jantzan. Antzik bez, hor e! Antzik bez." Eta halantxe zertu nuen. Ta hurrungo urtin be bai, urte bitten segixen Ielengo.

22. Dantza-lagunak belauna apurtu

- **Erref:** MOR-001/026
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:48:04. **Bukatu:** 00:49:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Dantza-lagunak belauna apurtu zuen handik laster. Oraintsu, Morgako batekin ibili da. Mungian, Bakion, Bedaroan eta hainbat herritan dantzatu dute.

Transkripzioa

- Ta gero handik, ba ibiltten zienak, gero harek beleune apurtu ein andriek, Andrakakoak, nire lagunak jantzarako. Bueno, joan gintzezan gero Larraurin ein gendun. Haregaz ein nuen. Eta Larrauritik Bakixorako euki gendun errekadue. Ta Bakixora, hor bixen bittartin beleune apurtu zun / apututzun/ jeusitte-edo. Eta gero, oin ibiltten izen naz Morgako bateaz. Ez dau, ez dau ondo ein; baia, eon ez da oin, nire sasoikorik edo zerien. Badauz hor Gamiz aldien ta horretan badauz, baia hemetik egon ez da ta nora joango zara ba? Ta horregaz ibili naz, ba Mungixetik, Mungixen, Bakixon ta hamen, Baderlonan ta hainbet herritten ein duu. Ta oin ya, onddik gora gatz izengo da.

23. Donatila, Santiren lehen dantza-laguna

- **Erref:** MOR-001/027
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:49:08. **Bukatu:** 00:51:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Plazan ikusita ikasi zuen dantzan. Familian ere dantzari onak izan ditu. Soinulariak ere baziren auzoan. Donatila izeneko neska izan zen gaztetako bere lehen dantza-laguna.

Transkripzioa

Ta zuk zelan ikesi zendun ba, plazan?

- Emaztea: Berez.

- Bai. Berez, berez. Nik ikusitte. Gurin arrebak eta anaixik be bai, eitten eben [...] jantzie-ta. Harexei beittute. Hasi nitzen neu be, ta ene!, danak ikeraute. Ene, zein da jantzan zerin moduen? Ta gero, bueno gero klaro, guk han euzoatik aparte etze bakar baten, Bixorreta esaten jakon lekuen, han soñolaixek beti, euren denpora guztixen eon zin. Eta erremedixi soñue zera jotzen deuen, Antonio, ona ixen zan. Ta harek haregaz gu lagun ixete gintzezan. Ta hori nik lehen esanekoa, Donatila, jantzarixe terriblie, hamengo Landoskoa, krixeda eon zan beheko tabernan Meakaurren. Eta horrek soñolaixek, nobixe euki otson han alboan. Eta soñue erremedixe akabaten zani, nik edo nire anaixik ekarte eban lepoan hartute beheko tabernara. Eta han eitten genduzen gero, haregaz neskiaz nik eitten nuen, ene! Igual hogeta hamar korru gau bakotxien. Ba nik orduen, jantzan itzela atata naban hor hamazortzi-hogei urte bueltan. Bueno! Baia bera be ona ixen zan gero, Donatila be jantzan! Harek eta nik, hareaz, ein dotaz, Andra Marin te Meakaurren ta hor konkursoatan.

- Neskak be gureko ebien zuaz jantzan ein?

- Danak, bape dakixenak. Danak gure ixaten euren.

- Ikesteke badan be?

- Bai. Baia ajille ixen naz, buf! Ni jantzan ajille, bueno!

24. Panderojole eta bateriajole erromerietan

- **Erref:** MOR-001/029
- **Iraupena:** 0:15:51. **Hasi:** 00:59:09. **Bukatu:** 01:15:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Erromerietan panderoa, bonboa eta bateria jotzen ibilitakoa da Josetxo izeneko soinulari batekin. Morga inguruko herri eta auzoetan ibiltzen zen hari laguntzen. Erromeria asko egiten zen sasoi batean baina gero galtzen joan ziren. Jende multzo ikaragarriak biltzen ziren erromerietan.</p>

Transkripzioa

- Eta nungo erromerixetan ibiltzen ziñen ba, zu jotzen?

- Ni ba Morgan. Morgako erromerixetan. Gero, San Juanen ta han Fike ondoan eitten zan. Paresitan beiñoz jotzen ibillite nau. Eta holako zeretan. Haxeaz beti. Haxe lagunduten.

- Ta kobretan zendun ezer?

- Bai, bai, bai, bai. Emoten sotien niri orduen.

- Nok herrixek edo jentik?
- Ez, ez, ez, ez, ez. Erromedixen gero kobreu eitten zan orduen jantzan eittie. Eta berak, ni, eroaten ostena, ha bonboa jotiarren, ba emoten osten orduen, ez dakit zemat? Bost edo sei ogerleko-edo, orduen ba asko ixeten zan. Eta nik bai, nik orkestan be, orkesti gero eoten zan, ekarten euren beti saxofoie ta horrek, zerakoak Mungixetik-eta. Eta neuk zera joten nuen, baterixe. Ta ha bestie, soiñolarixe ixen zan ona, Josetxu. Bueno!
- Ta baterixe be bai, jazzbana-eta?
- Ba, ba, ba, bai.

25. Morgak herri-baso gutxi

- **Erref:** MOR-001/031
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:56:40. **Bukatu:** 00:57:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Morgak pare bat herri-baso du bakarrik. Inguruko zenbait herrik, ostera, Errigoitik esaterako, asko. Horregatik udan abereak basora bota eta ondo mantentzen dira.

Transkripzioa

- Ta lehen be esan dozu aiuntamentuko kontuena-ta berbetan, herri-basoak-ta asko dauzela?
- Morgan? Keba, gitxi.
- Oin ya ez?
- Morgak herri-baso gitxi deko. Dekoz San Juanen deko, baia zemat? Zemat, ze arlo da, ba? San Juanek deko bat ta beste bat deko Arretxilluko zerien, beste baso bat. Ostantzien Morgak hemen herrixetan gitxien euko deu herri--basoak. Ez, ez, ez, txikerra ezta, ezpabeze, euki ez herri basoak. Osake, beste herri batzuk, esate baterako Errigoittik-ta ba hori, Otxolarreko, atzeko espalda guztixe ta han goixen ta dana euki dekiez, herri-basoak lehenau. Zoaz, horra Nabarra aldera ta ba, horko herrixek dekotsuez ba mendi osoak, herri- basoak. Ta hagaittik gero ganaduek eta han, han zerak, botaten dittuez ta han sostenitten dittuez ude guztixen. Ostien Morgak ez deko herri-baso, gitxi, gitxi deko, herriko terreno gitxi.

26. Morgako tabernak

- **Erref:** MOR-001/032
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:57:48. **Bukatu:** 00:59:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Morgako Meakaurren bi taberna ziren eta Andra Marin hiru. Izenak eta xehetasunak.

Transkripzioa

- Ta lehen be esan dozu, Andra Mari ingerukoak taberna zaliek ziela-ta? Ta ze taberna egon zan Morgan, bai Andra Marin ta bai Meakaurren-edo?
- Emaztea: Meakaurren, bi. Bueno, honek esango dotsu.
- Bai, Meakaurren bi. Bi, eoten zin beti. Eta Andra Marin normalien hiru eon dire. Oin be bai.
- Zeintzuk zien, ixenak-eta?
- Oin be, hiru dauz. Oin ba, Katxina esaten jako bat. Besti Polina eta bestie Estarta esaten jakona. Estarta lehen ez zan egoten, baia Josefatek eukitten euen beheraukoa. Beheraukoa edo beste Etxetxikin be bai. Etxetxikin be, makina bat urtien. Etzetxiki esaten jakona. Osake, hiru taberna ba urte askotan, eon da, eon da Andra Mari. Ta beheien, bi. Bi.
- Ta besterik ez?
- Ez, ez. Gero Gerekizen. Gerekizen, oin arte be eoten zan Gaztelu-eta.
- Antxelen be bai.
- Antxelen bai, Antxelekoa ya tabernie baiño ya bodegille moduen edo holako, ba! Ardoa ta... Piok be euki euen, bai.

27. Morgako eskolak Meakaurren eta Andra Marin

- **Erref:** MOR-001/034
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 01:00:13. **Bukatu:** 01:01:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolara buelta gutxi egindakoa da Santi. Hamabi urterekin morroi joan zen. Andra Marin eta Meakaurren egon ziren eskolak, baina gerra ostean Andra Marin bakarrik. Klase bakoitzean berrogei ume inguru ibiltzen ziren.

Transkripzioa

- Orduen eskolara bieja gitxi eindde gauz gu, gitxi, oso gitxi. Ni hamabi urtegaz krixedu joan nitzen ta atara eizu kontue, hamabi urtegaz. Osake, ta gero gerra denporan ta bueltatan ta ba, eskola barik eon gitzezan. Andra Marire joaten garela be, eon gintzezan unekada baten.
- Baia euzoan ez zenduen euki?
- Ez, ez ez. Eskolie eon zan beheien, Meakaurren eta goixen, goiko Andra Marin. Baia unekada baten, maisu-maistraik ez zan eoten beherako ta goixen, Andra Marin eon zien maistra bi ta hara joaten gintzezan gerraostien. Eta bueno, gitxi-gitxi, eskolara ez duu asko ez eskolara gitxi, asko ez duu bieja asko.
- Eta nungo umiek batzen ziñien eskolan-edo? Euzokoak edo gehixau be bai?
- Ba ordun umie, ume asko eoten zan etze bakotxien. Orduen eskola bakotxien, igual berrogei lagun ibiliko zin, berrogei ume. Mutillek, berrogei ta beste henbrak, neskak beste hainbeste ingeru, aparte, harek aparte. Eta bai, ordun bakixu: etze bakotxien eskolarako hiru-lau eoten zin edo gehixau.

28. Maisu-maistra guztiak erdaldunak

- **Erref:** MOR-001/035
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 01:01:38. **Bukatu:** 01:02:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Maisu-maistrak egoten ziren herrian. Valladolid, Jaen, Zaragoza..., euren jatorria; denak erdaldunak. Irakasle euskaldun bakarra ezagutu du, gerra aurretik egondakoa.

Transkripzioa

- Ta maixue edo maistrie edo ze, abadie edo ze eukitte zenduen?
- Ez maixu-maistrak. Bai maixue eukitten gendun guk. Maistrie be bai, euki gendun uneka baten, maistrie be, Valladolidkoa. Eta gero ba maixuek. Zaragozako be egon zan. Ta gero, bueno, ni ez nitzen ibilli haraz, baia beste bat eon zan, Jaeneko edo.
- Emaztea: Erderarik batek eitten be itxi bez batek, sikan.
- Ez. Ba, orduko kontuek.
- A, bai? Ta erderaz edo euskeraz eskolan?
- Gu geuk euskera, baia bertan erderaz, euskeldunik ez zan egon-ta. Esan gure dot /quot/ maixu-maistraik euskeldunik ez dot, bat ezetu dot, gerra aurretik eon zana. Ostantzien danak ixen dire Murziakoak, Jaenekoak edo Zaragozako ta holan, ixen die danak kanpokoak.
- Ta zelan etorten zien haiñ urrunetik, Murziatik-eta?
- Leakaburun oin egon dana, Gordo, ba Leoneko ixen da ha, be gure mutillekaz egon dana.

29. Murtziako maisuak euskaraz ikasi

- **Erref:** MOR-001/036
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 01:02:57. **Bukatu:** 01:04:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Murtziako maisu batek heldu bezain laster esan zuen euskaraz ikasi nahi zuela eta baita ikasi ere. Bandurria jotzen zuen; Santiren lehengusu batek soinu eta Santik panderoa, egundoko erromeriak antolatzen zituzten hiruren artean. Mutil alaia eta jatorra ei zen.

Transkripzioa

- Ta beste bat egon zan Murziako bat be. Ta Murziakoak ba bandurrie joten euren ondo. Eta nire pariente bat, bigarren lehengusuek, soiñue Meakaurren eta nik panderoa. Eta kriston erromerixak armetan genduzen guk hiruron artien, garrotie! Harek etor zanien, bueno esan zauen: "niri ez ein erdera barbarik! euskera ikesi biher dot-ta". Eta ensegida ikesi eban

euskera! Euskera ta ganera ein eitten euen euskera, ein. Klaro, igerten jakon, ezta kostetan jakona, baia berak edozen moduten be, hori zera hartu zun /hartutzun/ eta euskera ikesitte joan zan hemetik maixue. Bai, gixon zera ixen zan, bueno mutille. Solterue ixen zan. Ta bandurrie-edo joten dotsun /jotetsun/, te bueno. Mutil alegrie ixen zan ta euskera, erdera berari ez eitteko. Eta euskera ikesi ein eban. Murziakoa ixen zan.

30. Dotrina buruz ikasita komunioa egitera

- **Erref:** MOR-001/040
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 01:08:00. **Bukatu:** 01:10:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

<p>Eguerdiko hamabietan kanpaiak entzuten zirenean, eskolatik irten eta elizara joaten ziren dotrinara. Gerra ostean oso abade ona egon zen Morgan, dotrina ondo erakusten zuena. Komunioa egin orduko goitik behera ikasita izan behar zuten dotrina. Besterik beharbada ez zuten jakingo, baina dotrina buruz. Euskaraz ikasten zuten, baina errezoak-eta erdaraz ere ikasi zituzten eskolan. Asentzio egunean berrogei kredo errezatzen zirela dio emazteak.</p>

Transkripzioa

- Ta dotriñie nun ikesten zenduen?
- Dotreñie, dotreñie komuniñue ein orduko hasi goixen ta behera, “a raja tabla”.
- Emaztea: Etzien ta astien erdixen eskolan eta domakatan gu geuk Kruzien elixan. Beti.
- Abadie beti hamabixek noiz joko zittuzen /jokottuzen/! Joten zittuzen kanpak eta itxaroten, zerien, eskolatik urteten genduenien, danok zerera, elixara dotreñera. Eta arterau zerekoa eon zan, Andra Mariko bat ta harek, lobak euki zittuzen handitxuek eta harek imin zittuzan /iminttuzan/ batzuk, batzukaz; ta bestiek abadiak beste batzuk eta holan, grupoetan imintte, ikesten dotriñan. Ene! Eta gero, gerraostin etor jakun Karmenetik don Enrike. Ha, eon zan gero, urte asko ein euen Morgan. Abade ona! Ta harek be, itzela, itzela dotreñi irakasten. Bueno, puf! Orduen, ordusn komuñinorik ez euen eitten iñok, dotriñie dana goixen hasitte behera ez bakizun. Ordun guk ya, komuniñu ein orduko, besterik ez, igual eskribitan ta leitan ez zuen jakingo baina dotriñie buruz dana.
- Dotriñie bai zala euskeraz, ezta?
- Ba, ba, bai, euskera. Euskera. Gero guk geuk guk eskolan erderaz be bai ikes gendun. Agur Marixa ta bestie ta zerak guxtixek.
- Emaztea: Asentziño egune dala-ta berrogei kredo-errexera erain. Bueno, gero guresoak be bai! Ume bakotxari kartilli-ta emonda. Bota lekue banan imindde-ta.
- Bueno, orduen orduen diferentie.

31. Konfesatzera joan zen baserritar lapurraren txistea

- **Erref:** MOR-001/042

- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 01:13:24. **Bukatu:** 01:14:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Txahala eta behia lapurtu eta hurrengo udaberrian konfesatzera joan zen baserritarraren txistea.

Transkripzioa

- Hau txistie be konteu biher dot /biot/. Iguel... Bi joan zien ta bik, beheixe ta txahala ostu zittuezan /ostuttuezan/. Ez dakixu hori? Behixe ta txahala. Ta gero klaro, orduen gero ixeten zan ba nabo-lora denporan ixeten zan ba konfeziñoa. Bakizu, Pazko denporie, ja naboak loratute eoten zin denporan-ta. "Oin ño behixe ta txahala ostixek, ba oin konfesetan joan bixuau, ba!" esan otsien bata bestiai ta "bai". Eta pentse due baze, "neu jungo naz lehenengo" esan dotso, "eta nik ba txahala ostu dotela, esango dotset, ta gero ba, behexina zertxo hartzeko". Eta joan ta konfesetan ta ba: "txahala ostu dot-eta". Hori esan dotsonin abadiak: "Hi!" altxeu ein da abadie eta "geldi!" esan dotsola sorbaldatik agarraute, "geldi" esan dotso. "Hamen dau behixe ostukoa be-ta". Eta bueno, holan izen da-ta. Emon dotso asoluziñoa ta joan da. Urten deu eta: "Ze esan duu?" esan dotso /esantso/ bestiek, eta: "Ez deket konfeseu biharrik, neuk ein dotsiet /eintsiet/-eta esan dotso /esantso/ gero.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com